

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Bidaiari kopuruak % 6,3 eta gauldienak % 5,8 egin du gora Nafarroan 2015eko urtarril eta apiril artean

Landetxetako bisitarien kopuruan izandako igoera azpimarratu behar da, % 38,4

Lunes, 08 de junio de 2015

Nafarroako Estatistika Institutuak 2015eko lehen lau hilabeteko ostatuak jakinarazi ditu; haien arabera, Foru Komunitateko turismoak goranzko joerari eusten dio, bidaiarien kopurua % 6,3 hazi baita, eta gauldiena, % 5,8. Zifra guztiak kontuan hartuz, 284.016 bidaiari eta 565.447 gauldi izan dira. Landetxeetan gertatu da hazkunde handiena.



Landetxea.

Bidaiarien zifra guztien barnean, hoteletan gauak pasatzen dituztenak (hoteletako bidaiariak) eta landetxe, kanpin eta apartamentuetan lo egiten dutenak (hoteles kanpoko bidaiariak) sartzen dira.

Hoteletako bidaiarien kopurua % 3,5 igo da, eta gauldiena, % 3,3.

Hotelez kanpoko bidaiarietan, % 17,8ko igoera izan du eta gauldiek, % 13,1ekoa. Landetxetako bidaiarien kopurua % 38,4 igo da.

Apirileko datuak

Apirilean, hotelez kanpoko establezimenduetan izandako bidaiariak igo egin dira (% 15,4), eta baita gauldiak ere (% 9,1), 2014ko aldi berarekin alderatuz. Zifra absolutuei erreparatuz, 31.166 bidaiarik 81.653 gauldi egin zituzten, hau da, batez beste 2,62 eguneko egonaldia (2014ko apirilean, 2,77koa izan zen).

Kontuan hartuz aurten Aste Santua martxo eta apirilaren artean egin dela (2014an apirilean izan zen), egokia ikusi da aldi horiek erantsitakotzat hartzea. Martxo-apirila batutako aldian, hotelez kanpoko establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien kopuruak % 19,9 egin zuen gora, eta gauldienak, % 13,3, 2014ko aldi berarekin alderatuz.

Apirilean, landetxeetan ostatu hartutako bidaiari gehiago izan dira (13.965), % 19,2ko urte arteko igoerarekin; gauldiak, berriz, 34.415 izan dira, hau da, % 6,1eko igoera 2014ko apirilarekin alderatuz. Bizilekua Espainian duten bisitarien jatorriari dagokionez, EAEtik etorri dira bidaiari gehien (% 31,4); Nafarroako barne-turismoa, berriz, bidaiari guztien %

31,9 izan da.

Kanpamentuetan egindako gaualdiak % 22,6 igo ziren apirilean aurreko urteko aldi berarekin alderatuz. 31.831 gaualdi erregistratu ziren, guztira, Nafarroako kanpinetan: 10.760 bidaiari, eta 2,96 eguneko batez bestekoarekin (2014ko apirilean, 2,36 egunekoa).

Azkenik, turismo-apartamentuetan izandako bidaiarien kopuruak % 50,7 egin du gora apirilean 2014ko hilabete berarekin alderatuz, Nafarroako Estatistika Institutuko datuen arabera.